



LASARTE-ORIAKO UDALAREN AUZOLAN PROGRAMAN AURREIKUSITAKO PRESTAKUNTZAZKO EKINTZAK 2008AN GARATZEKO LANAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, ESKAINTZA EKONOMIKOKI ONURAGARRIENAREN ARABERA ETA ADJUDIKAZIO-KO HAINBAT IRIZPIDEREN ARABERA KONTRATATZEA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Auzolan programan aurreikusitako prestakuntzako ekintzak 2008. urtean garatzeko urgazpen-zerbitzua ematea da.

Auzolan programa honen barruan garatzekoa den proiektuaren izena "Geriatrico Laguntzailearena" da, eta horren barruan landu beharreko profil profesionala gerokultoreari dagokiona da.

2.- KONTRATUAREN KONDIZIOEN DESKRIPZIOA

Egin beharreko lanaren ezaugarri teknikoak ondoren azaltzen den zerrenda honetan daude zehaztuak:

2.1.- PRESTAKUNTZAKO EKINTZAREN KOKAGUNEA

Prestakuntzako ekintza Lasarte-Oriako udalerrian garatu beharko da.

2.2.- EGUTEGIA

- Hasiera: 2008-12-19
- Bukaera: 2009-06-30

2.3.- EDUKIAK

1.- Hasierako prestakuntza: 30 ordu

Enpleguarekin loturiko ohitura soziopertsonaletan eta gaitasun sozialetan trebatzeko ekintzak.


2.- Laguntzeko prestakuntza: 144 ordu

Enpleguarekin loturiko ohitura soziopertsonalak indartzeko eta gaitasun sozialak garatzeko banakako ekintzak. Kontratazioak dirauen fasean egingo dira, eta astean ordubeteak izango dira parte-hartzaile bakoitzeko.

3.- Lanerako prestakuntza: 344 ordu

- Taldekako prestakuntza okupazionala: 224 ordu
- Lanpostuan bertako prestakuntza: 120 ordu (15 ordu parte-hartzaile bakoitzeko).

Gerokultore profileko enpleguarekin loturiko gaitasunetan profesionalki kualifikatzeko ekintzak.



4.- Gaitasun sozioprofesionalen balantzea: 20 ordu

Programaren prozesu guztian bereganatutako gaitasunen balantzea egitea, eta laneratzeko programa bat zehaztea, handik ateratzean betetzekoa.

5.- Tutoretzako eta laguntzako prozesua: 256 ordu.

Proiektuetariko bakoitzean kontraturiko pertsona guztien tutoretzako eta laguntzako prozesua eramatea, lan-jarduerak irauten duen fase guztian, eta taldea koordinatzeaz arduratzea.

2.4.- BALIAKIZUN PERTSONALAK

- Programaren arduradun koordinatzailea: tutoretzako eta laguntzako prozesua
 - ▶ Erdi-mailako tituluduna, enplegu eta prestakuntzako programen zuzendaritzan eta kudeaketan esperientzia egiaztatua duena.
- Prestakuntza okupazionalerako
 - ▶ Prestakuntzako ekintzak berekin eskatzen dituen formazio-moduluak garatzeko, profesional kualifikatuak hartuko dira, geriatriaren arloan gaitasun egiaztatua dutenak eta prestakuntza ematen eta maila teknikoan taldeak zuzentzen esperientzia dutenak.
- Edukien 1), 2), 4) eta 5) ataletan deskribaturiko prestakuntzako ekintzak garatzeko:
 - Gutxienez maila ertaineko prestakuntza akademikoa duen profesionala. Prestakuntza eta orientazio laboraleko lanetan prestakuntza espezifikoa eta esperientzia duena.

2.5.- AURREKONTU XEHATUA

1. Hasierako prestakuntza:		2.010,00 €
2. Sostenguko prestakuntza:		3.888,00 €
3. Prestakuntza okupazionala:		22.539,11 €
– Prestalanak	1.382,00 €	
– Irakasleak	12.704,00 €	
– Administrazioa eta gastu orokorrak	3.306,91 €	
– Antolamendua eta kudeaketa	1.246,20 €	
– Materialak	3.900,00 €	
– Joan-etorriak	0,00 €	
4. Gaitasunen balantzea:		1.340,00 €
5. Tutoretza eta laguntza.		6.912,00 €
	GUZTIRA (BEZa barne)	36.689,11 €